

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

PSIKOLOGIA
FAKULTATEA
FACULTAD
DE PSICOLOGÍA

OSASUN PSIKOLOGIA OROKORRA MASTERRA

2024/2026



AURKIBIDEA

1. MASTERREKO BATZORDE AKADEMIKOA.....	4
2. GAITASUNAK.....	4.
3. IKASKETA-PLANA	5.
4. AZTERKETA EGUNAK.....	13
5. IRAKASGAIK 2024-2025.....	14
6. KANPOKO PRAKTIKAK.....	15
PROZEDURA.....	
IKASLEEK EGIN BEHARREKOAK.....	
EBALUAZIOA.....	
OSASUN ZENTROEN EDO ZERBITZUEN EZAUGARRIAK.....	
MEMORIA EGITEKO IRIZPIDEAK.....	
7. MASTER AMAIERAKO LANA.....	25
EDUKIAREN DESKRIBAPEN LABURRA.....	
IRAKASGAIAREN GAITASUNAK.....	
EZAUGARRI OROKORRAK, IZENA-EMATEA ETA DEFENTSA.....	
MASTER AMAIERAKO LANAK ANTOLATZEKO GIDA.....	
EBALUAZIO IRIZPIDEAK.....	
ZUZENDARI IZATEKO IRAKASLEAK ETA PROPOSATUTAKO GAIK.....	
8. IRAKASLEAK	42
9. ERANSKINAK.....	47

1. MASTERREKO BATZORDE AKADEMIKOA

Kargua	Izena	Telefonoa	E-maila
Batzordeburua	Salaberria, Karmele	943 015635	mcarmen.salaberria@ehu.eus
Batzordekidea	Aliri, Jone	943 018382	jone.aliri@ehu.eus Praktiketako dekanordea
Batzordekidea	Etxeberria, Igone	943 018950	igone.etxeberria@ehu.eus

Idazkaritza: 943018248/ 943018297 / psikologia.fak.opomasterra@ehu.eus

Psikologia Fakultatea.Tolosa Hiribidea 70 / 20018 Donostia.

<https://www.ehu.eus/eu/web/psikologia-fakultatea/>

<https://www.ehu.eus/eu/web/master/osasun-psikologia-orokorreko-masterra>

2. GAITASUNAK

- Osasun integralaren kontzeptua barneratu, garatu eta praktikan jarri, osasunaren osagai biopsikosozialei leku eginda, OMEk finkatutako jarraibideekin bat etorrita.
- Giza portaeraren izaera psikologikoa eta hartan eragina izan dezaketen gizarte-eta biologia-faktoreak ongi ezagutu.
- Giza portaeraren nahasmenduen izaera psikologikoa ongi ezagutu.
- Osasun- eta gaixotasun-arazoei lotutako faktore psikosozialak eta biologikoak ongi ezagutu, bereziki buru-osasunarekin zerikusia dutenak.
- Osasun- eta gaixotasun-arazoei lotutako faktore psikosozialak ongi ezagutu.
- Osasun Psikologia Orokorraren esparruan eta osasun-arazoekin lotutako faktore psikologikoetan ebaluazio eta esku-hartze ereduak ongi ezagutu, baita haietatik eratortzen diren teknikak eta prozedurak ere, portaeraren nahasmenduei aurre egiteko.
- Pertsonen artean komunikatzeko eta emozioak egokiro gobernatzeko trebetasuna izan arazoa identifikatzeko, ebaluatzeko, diagnostikoaren eta esku-hartzearen berri emateko eta jarraipen psikologikoak egiteko prozesuetan zehar eragin-truke eraginkorra gerta dadin gaixoei, familiekin eta erizainekin.
- Giza portaeraren eta osasun-arazoekin lotutako faktore psikologikoen ebaluazio psikologikoaren prozesua planifikatu, gauzatu eta, hala behar duenean, ikuskatu, haien ebaluazioa zehaztu ahal izateko.
- Txosten psikologikoak egin hartzaileentzat, modu egokian.
- Ebaluazio psikologikoan eta kasu bakoitzean gertatzen diren aldagai indibidual eta sozialetan oinarriturik, esku-hartze psikologikoko planak eta programak diseinatu, garatu eta, hala behar bada, ikuskatu eta ebaluatu.

- Ikerketaren esparruko lan-hipotesiak egin, eta informazioa kritikoki jaso eta baloratu, arazoak konpontzeko, metodo zientifikoa aplikaturik.
- Informazio klinikoaren iturriak erabili eta kritikoki aztertu.
- Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabili lanean.
- Norberaren eta komunitatearen osasun psikologikoa zaintzeko sustapen- eta heziketa-jarduerak egin.
- Komunikatzen jakin, baita beste profesionalekin ere, eta lana taldean eta jakintza-alor anitzeko taldeetan egiteko beharrezkoak diren trebetasunak menderatu.
- Espainiako osasun-esparruan indarrean dagoen arautegia ezagutu.
- Jarduera profesionalean bioetikaren oinarriak eta gogoeta egiteko metodoa aplikatu, eta osasun-arloko profesional gisa jardun, osasun-arloko lanbideak arautzeko azaroaren 21eko 44/2003 Legean xedatutakoari jarraiki.
- Osasun-arloko langileen betebeharrak eta erantzukizunak ezagutu, gaixoen datu pertsonalen babesari eta informazioaren isilpekotasunari dagokienez.
- Osasun-arloko psikologo nagusiaren jardun-esparrua ezagutu eta dagokion profesional espezialistarengana bidaltzen jakin.
- Enpresa bat osatzeko, abiarazteko eta kudeatzeko ezinbestekoak diren jarduerak ezagutu, baita forma juridikoak eta haiei atxikiriko lege-, kontabilitate- eta zerga-betebeharrak ere.
- Lana kalitatearen eta etengabeko hobekuntzaren ikuspuntutik garatu, lan profesional arduratsua izateko behar-beharrezkoa den autokritika egiteko gaitasunarekin.

Oharra: Irakasgai bakoitzaren informazio zehatza masterreko web orrian topa daiteke:
<http://www.ehu.eus/es/web/master-psicologia-general-sanitaria/aurkezpena>

3. IKASKETA PLANA

Ikasketa planak 90 kreditu ditu: horietatik 45 nahitaezko irakasgaiei dagozkie; 3, hautazko irakasgaiei; 30, kanpoko praktikei; eta 12, Master Amaierako Lanari (MAL). Bi ikasturte akademiko suposatzen du.

Bai nahitaezko irakasgaiek bai hautazkoek aurrez aurreko eskola magistralak eta ikasgelako praktikak dituzte. Gainera, hainbat prestakuntza-jarduera proposatzen dira: azalpeneko eskolak, txosten-idazketak, irakurketak, baliabideen maneiua, proiektuen aurkezpena eta defentsa, kasu praktikoaren ebazpena eta talde-lana.

Kanpoko praktikak erakunde publikoetan edo pribatuetan egingo dira.

Master Amaierako Lana masterrean landutako irakasgaietatik hartutako edozein gairi buruzko lan zientifiko bat izango da, ikasitakoa agerian utziko duen lan bat egin, aurkeztu eta defendatzea. Osasun orokorra hobetzea helburu duen prebentzio eta interbentzio psikologiko eta psikosozialeko jarduerari lotutako gaitasun profesionala eta/edo ikerketa-gaitasuna erakutsi behar da.

Ondoren ikasketa plana azaltzen da, beltzez gai bakoitzaren koordinatzailea.

OINARRIZKO MODULUA

❖ Osasuneko psikologo orokorraren jarduera profesionala 3 ECTS	Irakaslea	Irakaslea	Kredituak
1. Psikologia klinikoa eta osasun psikologia orokorra: jardun esparruen mugatzea.	Ainize Sarrionandia	Ainize Sarrionandia	0,5
2. Psikologia, medikuntza orokorra, psikiatria, erizaintza eta gizarte lanaren alorretako profesionalen jardun esparruen mugatzea.			0,5
3. Etika, bioetika eta deontologia profesionala. Erantzukizun zibila eta penala jarduera profesionaletan.	Oscar Díaz (0,4) Ainize Sarrionandia (0,8) Mónica Gallo (0,4)	Irati Aizpurua	1,6
4. Osasun profesional gisa jardutea (osasun lanbideak antolatzeke azaroaren 21eko 44/2003 Legea)	Mónica Gallo	Irati Aizpurua	0,1
5. Enpresaren forma juridikoak. Lege, kontabilitate eta zerga izaerako betebeharrak			0,3

❖ Ebidentzian oinarrituriko psikologia metodoak. 3 ECTS	Irakaslea	Irakaslea	Kredituak
1. Hautatzeko irizpide zientifikoak eta ebidentzian oinarritutako programen dokumentazio iturriak.	Anabel Vergara	Nerea Lertxundi	1
2. Esku-hartze programen (tratamendua eta prebentzioa) eta ebidentzian oinarritutako jarduera profesionalaren oinarri zientifikoak.	Anabel Vergara (0,5) Nekane Balluerka (0,5)	Arantxa Gorostiaga	1
3. Ebidentzian oinarritutako esku-hartze programak (tratamendua eta prebentzioa) ezartzeko estandar metodologikoak.	Nekane Balluerka	Arantxa Gorostiaga (0,5) Nerea Lertxundi (0,5)	1

MODULU ESPEZIFIKOA

❖ <i>Psikopatologiaren aurrerapenak.</i> 5 ECTS.	Irakaslea	Irakaslea	Kredituak
1. Egokitasun nahasmenduak.	Monika Salgueiro	Monika Salgueiro	1
2. Mendekotasun kimikoak eta psikologikoak.	Manu Machimbarrena	Manu Machimbarrena	1
3. Elikadura nahasmenduak.	Iñigo Ochoa	Izaskun Marañon	1
4. Nortasunaren nahasmenduak.		Jose Martin Amenabar	1
5. Antsietate nahasmenduak eta gogo aldar-tearenak.	Monika Salgueiro		1

❖ <i>Psikologia eta osasun ebaluazioaren aurrerapenak.</i> 5 ECTS.	Irakaslea	Irakaslea	Kredituak
1. Garapen berriak ebaluazio psikologikoan eta osasunaren ebaluazioan: "Screening" eta norberaren diagnosi txostenak, elkarrizketa egituratuak, ebaluazio psikologikorako tresnak.	Paula Elosua (0,5) Leire Aperribai (0,7)		1,2
2. Ebaluazio psikologikoa eta gaixotasun fisikoa.	Igone Etxeberria		1
3. Auzitegiko ebaluazio psikologikoa.	Oscar Díaz	Aitor Murillo	0,8
4. Kasuen azterketa eta txostenak egitea.	Leire Aperribai (0,5) Itziar Alonso (1,5)		2

❖ Osasuna sustatzea eta gaixotasunaren prebentzioa 5 ECTS.	Irakaslea	Irakaslea	Kredituak
1. Osasunerako hezkuntza programak.	Edurne Maiz		0,5
2. Ohitura ez osasungarrii (tabakismoa, alkoholismoa eta drogak, gizentasuna eta abar) aurrea hartzeko programak.	Edurne Maiz (0,5) Eneko Sansinenea (1)		1,5
3. Emozio positiboak edukitzeko eta auto-estimua hobetzeko programak eta pentsamendu eta emozio negatiboak kudeatzeko programak	José Ignacio Pérez		1,5
4. Gizarte trebetasunetan, komunikazioan, bulkadei aurre egiteko eta kontrolatzeko estrategietan trebatzeko programak			1,5

❖ Ebidentzian oinarritutako tratamendu psikologikoak. 6 ECTS	Irakaslea	Irakaslea	Kredituak
1. Tratamendu psikologikoak: sarrera	Alex Muela		0,4
2. Osasun mentalaren esparruan enpirikoki balioztutako tratamenduak			2
3. Osasun fisikoaren hobekuntzarako esku hartze psikologikoa	Maidier Sierra (0,4) Naiara Mimentza (0,4) Xabier Arrazola (0,4)	-----	1,2
4. Prozesu terapeutikoa psikologia klinikoan	Karmele Salaberria		1,2
5. Enpirikoki balioztutako tratamenduak osasun mentalean: aplikazio kliniko zehatzak			1,2

❖ Esku-hartzea familiaren esparruan. 5 ECTS.	Irakaslea	Irakaslea	Kredituak
1. Gurasotasun positiboari buruzko programak eta babesteko faktoreen garapena.	Enrique Arranz	Patricia Macia (0,8) Miriam Gallarín (0,4)	1,2
2. Bikotekideen arteko gatazketan esku hartzeko programak eta familia bitartekaritza eta orientazioa	Iñigo Ochoa	Miriam Gallarín	1,4
3. Haurren beharriari erantzuteko arazo larriak dituzten familiei laguntza psikologikoa emateko programak.	Iñasi Arruabarrena	Miriam Gallarín	1,2
4. Osasun mentala duten pertsonen familiakoei laguntza psikologikoa emateko programak.	Olatz Ormaechea	Olatz Ormaechea	0,8
5. Saio klinikoak: eskatutako ebaluaziorako prozedurak, azalpen hipotesien ezarpena eta esku hartzeko plan baten garapena.	Enrique Arranz	Miriam Gallarín	0,4

❖ Indarkeria eta biktimizazio egoeretako esku-hartzea. 4 ECTS.	Irakaslea	Irakaslea	Kredituak
1. Bikotekideen arteko indarkeriaren ebaluazioa, prebentzioa eta tratamendua	Belen Sarasua (0,5) Irene Zubizarreta (0,5)	-----	1
2. Ebaluazioa, prebentzioa eta tratamendu psikologikoa haurren eta nerabeen kontrako sexu indarkeria dagoenean.	Iñasi Arruabarrena	Irune Corres	1
3. Berdinen arteko indarkeriaren ebaluazioa, prebentzioa eta tratamendua.	Manu Machimbarrena		1,6
4. Saio klinikoak: eskatutako ebaluaziorako prozedurak, azalpen hipotesien ezarpena eta esku hartzeko plan baten garapena.			0,4

❖ Haur eta gazteen ebaluazioa eta esku-hartzea. 5 ECTS.	Irakaslea	Irakaslea	Kredituak
1. Haur eta nerabeen klinika: gerturatze berriak ebaluazioan eta tratamenduan	Andone Sistiaga		0,4
2. Haurren nahasmenduen tratamendua	Bárbara Torres	Andone Sistiaga (0,8) Ainara Andiarena (1,2)	2
3. Nerabeen nahasmenduetan esku hartzea	Bárbara Torres (1) Goretti Soroa (1,2)	Ainara Andiarena (1) Goretti Soroa (1,2)	2,2
4. Saio klinikoak: eskatutako ebaluaziorako prozedurak, azalpen hipotesien ezarpena eta esku-hartzeko plan baten garapena.	Andone Sistiaga		0,4

❖ Zahartzaroaren ebaluazioa eta esku-hartzea. 4 ECTS.	Irakaslea	Irakaslea	Kredituak
1. Osasuna eta zahartzea. Bizi kalitatea zahartzaroan. Erretiroari eta afektibotasun galerei aurre egitea.	Javier Yanguas (0,4) Izarne Lizaso (0,2)		0,6
2. Zaharren nahaste emozionalen ebaluazioa, prebentzioa eta tratamendua.	Izarne Lizaso		1
3. Zaharren narriadura kognitiboaren ebaluazioa, prebentzioa eta esku-hartze goiztiarra.	Igone Etxeberria		1
4. Esku-hartze psikologikoen programak (tratamendua eta prebentzioa) zaintzaileekin.	Igone Etxeberria		1
5. Saio klinikoak: eskatutako ebaluaziorako prozedurak, azalpen hipotesien ezarpena eta esku-hartzeko plan baten garapena.	Nerea Galdona		0,4

HAUTAZKO MODULUA

Garapen berriak osasun psikologia orokorrean. 3 ECTS.

Hautazko irakasgaiaren edukiak aldaketak izan ditzake denborarekin. Masterreko batzorde akademikoak aukeratuko ditu edukiak, kontuan izanik gizarte eskerak, fakultateko adituak eta masterraren irakaskuntzan parte har lezaketen kanpo adituak.
Hautazko irakasgaiak gaztelania hutsean ematen dira.

❖ Nuevos desarrollos en PGS I. 3 ECTS. Intervención en crisis humanitarias, colectivas y personales	Irakaslea	Kredituak
1. Organización del Apoyo Psicológico con múltiples víctimas y desastres.	César San Juan	2
2. Reacciones habituales ante situaciones críticas o catastróficas.		
3. Habilidades, técnicas y estrategias para el apoyo psicológico inmediato.		
4. Intervención en Situaciones específicas de Crisis y Colectivos Vulnerables: El caso de personas refugiadas de guerra.		
5. El proceso de duelo.	Patxi Izagirre	1
6. Intervención terapéutica en el proceso de duelo.		

❖ Nuevos desarrollos en PGS II. 3 ECTS. Programas de tratamiento en la adolescencia	Irakaslea	Kredituak
1. Tratamiento trastornos de la conducta alimentaria	Joana Gómez	0,4
2. Tratamiento Trastorno límite de la personalidad y autolesiones	Joana Gómez	1,1
3. Intervención en consumo de sustancias	Ione Bretaña	0,5
4. Intervención en adicciones comportamentales	Ione Bretaña	1,0

4.AZTERKETEN EGUTEGIAK

PRIMERA CONVOCATORIA/LEHENENGO DEIALDIA

ASIGNATURA / IRAKASGAIA	TALDEA	EGUNA /FECHA	ORDUA HORA
Psikopatologiaren aurrerapenak Avances en psicopatología	31 01	Azaroak 4 4 de noviembre	9,00
Psikologia eta osasun ebaluazioaren aurrerapenak Avances en evaluación psicológica y de la salud	31 01	Azaroak 6 6 de noviembre	9,00
OPO jarduera profesional Práctica profesional	31 01	Abenduak 16 16 de diciembre	9,00
Indarkeria eta biktimizazio egoeretako esku-hartzea Intervención en situaciones de violencia y victimización	31 01	Abenduak 18 18 de diciembre	9,00
Ebidentzian oinarritutako psikologia metodoak Métodos de la psicología basada en la evidencia	31 01	Otsailak 12 12 de febrero	9,00
Ebidentzian oinarritutako tratamendu psikologikoak Tratamientos psicológicos basados en la evidencia	31 01	Otsailak 14 14 de febrero	9,00
Osasuna sustatzea eta gaixotasunaren prebentzioa Promoción de la salud y prevención de la enfermedad	31 01	Martxoak 26 26 de marzo	9,00
Esku-hartzea familia arloan Intervención en el ámbito familiar	31 01	Martxoak 28 28 de marzo	9,00
Haur eta gazteen ebaluazioa eta esku-hartzea Evaluación e intervención infanto-juvenil	31 01	Maiatzak 19 19 de mayo	9,00
Zahartzaroaren ebaluazioa eta esku-hartzea Evaluación e intervención en la vejez	31 01	Maiatzak 21 21 de mayo	9,00
Intervención en crisis humanitarias, colectivas y personales	01	3 de junio	9,00
Programas de tratamiento en la adolescencia	01	3 de junio	9,00

BIGARREN DEIALDIA: Ekainaren hirugarren astea, ekainak 16-20

SEGUNDA CONVOCATORIA: tercera semana de junio, 16-20 de junio

5.IRAKASGAIAK: 2024-2025 irakaskuntza gidak

Osasuneko psikologo orokorraren jarduera profesionala

Ebidentzian oinarritutako psikologia metodoak

Psikopatologiaren aurrerapenak

Psikologia eta osasun ebaluazioaren aurrerapenak

Osasuna sustatzea eta gaixotasunaren prebentzioa

Ebidentzian oinarritutako tratamendu psikologikoak

Esku-hartzea familiaren esparruan

Indarkeria eta biktimizazio egoeretako esku-hartzea

Haur eta gazteen ebaluazioa eta esku-hartzea

Zahartzaroaren ebaluazioa eta esku-hartzea

Nuevos desarrollos en PGS I: Intervención en crisis humanitarias, colectivas y personales

Nuevos desarrollos en PGS II: Programas de tratamiento en la adolescencia

GEHIGARRI BEZALA AZALTZEN DIRA ASIGNATUREN FITXAK IRAKASKUNTZA GIDAREN
BUKAERAN

6.KANPOKO PRAKTIKAK

Kanpoko praktiken bidez ikasleek aukera dute Osasun Psikologiaren labidean murgiltzeko, eta, hartara prestakuntza bidean dauden profesional legez arituta eta gainbegiratzeko egokiarekin, praktikan jartzeko Gradu eta Masterreko lehen urteko prestakuntza teorikoan eta praktikoan eskuratutako jakintzak eta gaitasunak.

Kanpoko praktikak bigarren mailako lehenengo seihilekoan egiten dira. Guztira 750 ordu dira (30 ECTS); 600 ordu praktiketako zentroan bertan egin beharrekoak, eta 150 ordu, praktiketako zentrotik kanpoko lanak egiteko, adibidez, praktiken memoria egiteko.

Praktikak baimendutako osasun zerbitzuetan egiten dira; zerbitzuok osasun zentroyen zerrendan erregistratuta egon behar dute eta hitzarmena izan behar dute sinatuta Euskal Herriko Unibertsitatearekin. Ikasleak zerbitzu berean lortu ahal izango ditu 30 kredituak, edo gehienez ere bi zerbitzutan txandaka arituz (haietako bakoitzean 15 kreditu eginez).

PROZEDURA

Ikasleek begirale bat izango dute praktiketako zentroan, eta Fakultatean Masterreko irakasle batek tutore lanak egingo ditu. Praktiken azken ebaluazioa Unibertsitateko tutoreak egingo du, kontuan hartuta begiralearen ebaluazio txostena eta ikasleak kanpoko praktiken inguruan egindako memoria.

Begiralearen eginkizunak dira ikaslea praktiketara gidatzea, praktikak gainbegiratzea, ikaslearen azken ebaluazioko txostena egitea eta tutoreari bidaltzea. Gainera, begiraleak ikaslearen jarduerak gainbegiratu eta gidatuko ditu, ikasleari gero eta erantukizun eta autonomia handiagoa emanda. Begiraleak praktiketako zentroko beste osasun langile batzuen laguntza izan dezake, baina profesional horiek ezin izango dituzte begirleari berari dagozkion lanak egin.

Tutorearen eginkizunak dira osasun zerbitzuko begiralearekin eta ikaslearekin harremanetan jartzea praktikak noiz hasiko diren zehazteko; ikaslearen lanak eta bilakaera gainbegiratzea; praktiekan kalifikazioa jartzea oinarri hartuta begiralearen balorazioa eta ikasleak egindako memoria.

Praktikak egin ahal izateko ikaslea asignaturan matrikulatuta egon behar du eta Masterreko lehenengo ikasturtea egina izan behar du. Ezingo da "kanpo praktikak" asignaturan matrikulatuta egon master amaierako lanaz gain, beste bi asignatura gainditu gabe dituenean (asignaturen kreditu kopurua kontutan hartu gabe).

Ondoren prozedura deskribatzen da eta praktiketako plazen esleipena:

- Masterreko lehenengo ikasturtearen otsailean informazio bilera bat egiten da, bertan ikasleari eskatzen zaio bere lehentasunak azaltzea eta zein probintzitan egin nahi dituen praktikak esatea.
- Ekainean, praktiketako zentroen katalogoa publikatzen da eta ikasleak aurreinskribapena egin behar du GAUR-en 15 plaza edo zentru aukeratuaz eta bere desioen arabera zerrendatuaz.
- Ekaina-Uztailea bitartean plazak esleitzen dira ikaslearen batzbestekoaren arabera.
- Uztailean ikaslea kanpo praktiketan matrikulatu behar da.

Praktiketako zentroak banatzeko, ikasleak Masterreko lehen mailan izandako batez besteko nota hartuko da kontuan. Ikasleak berak aukeratu du osasun zentroa lehentasuna zehaztuta, eta gero batez besteko notaren arabera banatuko dira plazak. Hortaz, batez besteko handiena daukan ikasleari hurrenkeran lehenengo aukeratutako plaza esleituko zaio, hurrengo notarik handienari bere aukeren artean libre dagoen lehenengoa eta abar. Praktika guztiak esleitu ondoren, ikasleari jakinaraziko zaio zein zentrotan egin behar dituen praktikak eta nor den tutorea. Bestalde, tutoreari jakinarazko zaio zein ikasleren tutore izango den eta osasun zentro bakoitzeko begiralea nor izango den, eta tutoreak harremanetan jarri beharko du berekin, praktikak noiz hasiko diren zehazteko.

Ikaslea aldian-aldina batuko pda praktiketako zentroko begiralearekin eta psikologia fakultateko tutorearekin, praktiken nondik norakoak gainbegiratzeko. Tutoretza horiek banan banakoak izan daitezke edo taldean egin daitezke.

IKASLEEK EGIN BEHARREKOAK

Praktikak egingo diren zentro motaren arabekoak izango badira ere, Osasun Psikologia Orokorraren Masterreko ikasleek prestakuntzaren alorrean egin ahal izango dituzten jarduerak jarraian adierazten diren hauek jaso ahal izango dituzte beren baitara; betiere, kanpoko tutorearen baimenarekin eta haren ikuskaritzapean:

- Erabiltzaileei harrera egin, eta historia klinikoa egiteko datuak jaso.
- Ebaluazio-saioen, esku-hartze psikologiko, kliniko eta asistentzialen eta erabiltzaileentzako berrelikadurazko saioren plangintza, behaketa eta analisisa egin eta horietan zuzenean parte hartu (ispilu bidez edo gela barnean), banaka, familiarrean edo taldean.
- Ebaluazio-prozesuetan edo esku-hartze psikologiko, kliniko eta asistentzialetan hirugarren iturrien informazioa bildu.
- Esku-hartze psikologiko, kliniko eta asistentzialaren ebaluazioari edo/eta bilakaerari buruzko txostenak egin.
- Esku-hartze psikologiko, kliniko eta asistentzialaren ebaluazio eta ikuskaritza klinikoko saioretan parte hartu.

- Praktikak egiteko zentzoko klinika/laguntza-taldearen koordinazio- eta planifikazio-bileretan parte hartu.
- Koordinazio-bileretan parte hartu, beste zerbitzuetako profesionalekin.
- Praktikak egiteko zentzok antolatutako prestakuntza-jardueretan (tailerrak, mintegiak etab.) parte hartu.
- Praktikak egiteko zentzok garatutako ikerketa-proiektuetan elkarlanean jardun.
- Materialak bilatu, ikuskatu eta aztertu.
- Masterrera finkatutako gaitasunak lortzen laguntzen duten beste antzeko jardura batzuk.

Ikaslea praktiketako zentzokaren ordutegi eta funtzionamendura moldatu beharko da begiralearen aginduak jarraituz.

IRAKASGAIAREN GAITASUNAK

- Osasun integralaren kontzeptua barneratu, garatu eta praktikan jarri, osasunaren osagai biopsikozozialei leku eginda, OMEk finkatutako jarraibideekin bat etorrira.
- Jardura profesionalean bioetikaren oinarriak eta gogoeta egiteko metodoa aplikatu, eta osasun-arloko profesional gisa jardun, osasun-arloko lanbideak arautzeko azaroaren 21eko 44/2003 Legean xedatutakoari jarraiki.
- Pertsonen artean komunikatzeko eta emozioak egokiro gobernatzeko trebetasuna izan arazoa identifikatzeko, ebaluatzeko, diagnostikoaren eta esku-hartzearen berri emateko eta jarraipen psikologikoak egiteko prozesuetan zehar eragin-truke eraginkorra gerta dadin gaixoeekin, familiarekin eta erizainekin.
- Kritikoki aztertu eta informazio klinikoaren iturriak erabili.
- Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabili laneko egitekoetan.
- Txosten psikologikoak egin hartzaileentzat, modu egokian.
- Osasun-arloko psikologo nagusiaren jardun-esparrua ezagutu eta dagokion profesional espezialistarengana bidaltzen jakin.
- Lana kalitatearen eta etengabeko hobekuntzaren ikuspuntutik garatu, lan profesional arduratsua izateko behar-beharrezkoa den autokritika egiteko gaitasunarekin.
- Komunikatzen jakin, baita beste profesionalekin ere, eta lana taldean eta jakintza-alor anitzeko taldeetan egiteko beharrezkoak diren trebetasunak menderatu.
- Giza portaeraren eta osasun-arazoekin lotutako faktore psikologikoen ebaluazio psikologikoaren prozesua planifikatu, gauzatu eta, hala behar duenean, ikuskatu, haien ebaluazioa zehaztu ahal izateko.
- Ebaluazio psikologikoan eta kasu bakoitzean gertatzen diren aldagai indibidual eta sozialetan oinarriturik, esku-hartze psikologikoko planak eta programak diseinatu, garatu eta, hala behar badu, ikuskatu eta ebaluatu.
- Norberaren eta komunitatearen osasun psikologikoa zaintzeko sustapen- eta heziketa-jarduerak egin.

EBALUAZIOA

Kanpoko praktiken ebaluazioan begiraleak (ebaluazioaren %70) eta Fakultateko tutoreak (ebaluazioaren %30) hartzen dute parte.

Batetik, begiraleak ikaslearen ebaluazio txostena beteko du. Txostenean zehatz jasota ageriko da balorazioa, hain zuzen ere ondokoei buruzkoa: laneko oinarrizko egitekoak, gaitasun profesionalak, jarrera, ezagutzak eta zeharkako gaitasunak. Txostena tutoreari bidali behar zaio.

Bestetik, psikologia fakultateko tutoreak kanpoko praktiken memoria ebaluatuko du. Ikasleak gehienez hilabeteko epea izango du memoria aurkezteko, praktika aldia amaitzen denetik kontatzen hasita.

Kanpoko praktiken egonaldian arazoren bat egongo balitz, ikasleak fakultateko tutoreari komunikatu beharko dio, eta honek egin beharrekoak baloratuko ditu eta praktiketako dekanordeari komunikatu behar den edo ez baloratuko du.

Ikasleak memoria entregatu ondoren, praktiken ebaluazio txostena bete behar du, bere esperientzia baloratuaz. Ebaluazio hau garrantzitsua da masterraren antolamendua eta funtzionamendua hobetzeko.

OSASUN ZENTROEN EDO ZERBITZUEN EZAUGARRIAK

Kanpoko praktikek bete beharreko irizpideak ekainaren 12ko ECD/1070/2013 Ministro Aginduan daude deskribatuta (latalean, 44952.orrialdean). Agindu horren bidez zehaztu ziren Osasun Psikologia Orokorreko Masterra titulu ofiziala egiaztatzeko baldintzak.

<https://www.boe.es/boe/dias/2013/06/14/pdfs/BOE-A-2013-6412.pdf>

Masterreko kanpoko praktikak egiteko aukera emango duten osasun zentro edo zerbitzuek dagokien autonomia erkidegoko osasun zentro, zerbitzu eta establezimenduen erregistroan osasun zentro gisa baimenduta eta erregistratua egon beharko dute.

Era berean, kanpoko praktikak emateko, masterraren ardura duten unibertsitateek hitzarmena sinatu beharko dute osasun zentro edo zerbitzuekin, unibertsitateen eta osasun erakundeen arteko itunen araubidearen oinarri orokorrak ezartzen dituen ekainaren 28ko 1558/1986 Errege Dekretuan xedatutakoaren arabera. Hitzamen hori ez da beharrezkoa izango osasun zenroa edo zerbitzua masterra ematen duen unibertsitateari atxikita badago.

Kanpoko praktiken hitzarmena sinatu ahal izateko, osasun zentro edo zerbitzuek gutxieneko jarduera tasaren baldintzak bete beharko dituzte, irakaskuntzako helburuak beteko direla bermatzeko adinakoa izan beharko baitu tasa horrek: gutxienez 400 kontsulta urtean eta horietatik 80 kontsulta berriak. Era berean, kanpoko praktiketako

ikasleen eta gainbegirale gisa jardungo duen pertsonaren arteko ratioa gehienez ere 10/1 izango da.

Garatu beharreko praktika klinikoarekin bat datozen baliabide material espezifikoak:

- Historia klinikoen artxiboa: konfidentziasuna bermatuz gorde eta erabili behar dira.
- Kasuen eta asistentzia jardueraren erregistro informatizatua.
- Liburutegia: laguntza kliniko-terapeutikorako oinarrizko testuen gutxienez kopuru bat eta/edo datu iturri digitaletarako sarbidea.
- Miaketa psikologikorako tresnak (testa) eta haztapen klinikorako tresnak (eskalak).
- Ereku fisikoak: prestakuntza jardura espezifikoak egiteko erabilean anitzeko instalazioak edukitzea.

Antolamendua, barne kudeaketa eta kalitatearen kontrola:

- Barne antolamenduari buruzko arauak, idatziak eta ezagunak, eta bereziki osasun zentro edo zerbitzuen arteko koordinazioari buruzkoak, halakorik balego.
- Urteko programazioa helburuen arabera.
- Jardueren urteko memoria.
- Oinarrizko protokoloak, eguneratuak, aplikazio diagnostiko eta terapeutikokoak.
- Aldizkako bilerak: aldizkako saio klinikoak (gutxienez 1 hilean).

Jardueraren adierazleak:

- Giza baliabideak: gutxienez bi psikologo Osasun Psikologia Orokorreko Masterra dutenak, Psikologia klinikoko espezialitatekoak, edo, bein behinekoz, gizarte ekonomiari buruzko martxoaren 29ko 5/2011 Legearen 6.xedapen gehigarriaren 2. Apartatua adierazitakoaren arabera osasun jarduerak egiteko erregistratutako psikologoak direnak.
- Zentroan ezarritako jardura programen esparruko laguntza programak/jardura arautuak. Honako hauetako batzuk hartu ahal izango dira kontuan:
 - Ebaluazio psikologikoko programak
 - Esku-hartze psikologikoko programak
 - Programa espezifikoak: adikzioak, bikote terapia, adinekoen portaera nahasmenduei arreta, haur eta gazteen portaera nahasmenduei arreta, patologia kronikoak dituzten pazienteentzako laguntza psikologikoa, etab.

Kanpoko praktiken antolaketa, jarraipena eta ebaluazioa:

- Praktiketako profesionalen jarraipena eta ebaluazioa egiteko izendatutako tutoreak prozedura jakin baten arabera izendatu eta aldian-aldian berrakreditatzen dira.

- Kanpoko praktikak garatzeko banakako plan espezifikoa.
- Praktiken erregistro dokumentatua eta banakakoa.
- Jarduera praktikoaren ebaluazio arrazoitua.

Ikasleak praktikak egiteko aukera izango du katalogotik kanpo dagoen zentru batetan, prozedura honi esleipen zuzena deitzen zaio. Hala ere, gomendatzen da Fakultateak hitzarmenik ez duen zentroetan praktikak egin ahal izateko kontutan hartzea zentro hauek bete behar dituzten irizpideak. Ondorioz ikasleak ziurtatu behar du zentroak Ministeritzako aginduan (ekainaren 12ko ECD/1070/2013) ezarritako irizpideak betetzen dituztela.

Ikasleak zentru berri bat aurkitzen badu praktikak egiteko (esleipen zuzena) ondorengo prozedura jarraituko da:

- Praktiketako dekanordeak ematen duen txostena betetzea.
- Txostena bete ondoren pdf formatuan gordetzea, eskakizunaren ziurtagiria edukitzeko eta hau praktiketako dekanordeari komunikatzea.
- Ikasleak jasotako datuak praktiketako dekanordeak gainbegiratu behar ditu. Zuzenak badira hitzarmena sinatuko da UPV/EHU-ren eta zentroaren artean eta zuzenean esleituko da plaza.

KANPOKO PRAKTIKEN MEMORIA EGITEKO ORIENTABIDEAK

MEMORIA ENTREGATZEKO ERA

Praktiken memoria paperean aurkeztuko zaio barruko tutoreari. Komeni da ikasleak kopia bat gordetzea.

Normalean, eta barruko tutoreak bestelako eperik ezarri ezean, praktikak amaitu eta hilabeteko epearen barruan aurkeztu behar da.

FORMATUA

Praktiken memoria da barruko tutoreak kanpoko praktikak kalifikatzeko erabiliko dituen irizpideetako bat. Edukia nahiz forma baloratuko ditu. Kontuan izango du noraino izan den gai ikaslea memoria bat ondo osatzeko, sintaxi eta ortografia zuzenaz idatzia, eta hartzaileari egokitua. Era berean, baloratuko du ikaslea gai izan den ideiak txukun antolatzeke eta argitasunez eta ondo laburbilduta azaltzeko.

Memoriak formatu hau izan beharko du:

- Gehienez, 25 orri izango ditu, alde bakarrean idatzita, kontuan hartu gabe azala, aurkibidea eta eranskinak.
- Paperean (DIN-A4) eta koadernatua aurkeztu beharko da.
- Ordenagailuz egin beharko da (ez eskuz).
- Ezaugarri hauek izan beharko ditu: Times New Roman, 12 puntu, 1.5eko lerroarte, 2.5 cm-ko marjinak.

- Siglak lehen aldiz aipatzean, esanahia adierazi beharko da.
- Grafikoek, irudiek eta taulak zenbakia eta izenburua izan beharko dituzte.
- Aipu eta erreferentzia bibliografikoak APA estilo arauen arabera egin beharko dira.

EDUKIA

Hemen aurkeztuko dugun edukien gidoia orientaziorako baino ez da. Edukia egokitu daiteke barruko tutoreak ematen dituen jarraibideen arabera, ikasleak praktikak egin dituen arloaren eta zerbitzuaren arabera eta bertan egin dituen jarduera zehatzen arabera.

Hala ere, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko Ikasleen Kanpoko Praktika Akademikoen Araudiaren arabera, memoriak eduki hauek izan beharko ditu, gutxienez:

- a) Ikaslearen datu pertsonalak.
- b) Praktikak egin dituen erakunde kolaboratzailearen izena eta lekua.
- c) Ikasleak betetako zereginen azalpen zehatza, praktika egin duen erakundeko sailen izenak eta deskribapena.
- d) Egindako atazen balorazioa, unibertsitatean eskuratutako ezagutzak eta gaitasunak kontuan hartuta.
- e) Praktikan aurkitutako arazoaren zerrenda, eta horiek konpontzeko erabilitako prozedura.
- f) Praktikei esker ikasitakoaren azalpena.
- g) Praktiken ebaluazioa eta hobetzeko iradokizunak.

EGITURA

AZALA	<p>Honako hauek jarri behar dira:</p> <ul style="list-style-type: none">• Izenburua• Praktiken lekua• Praktiken lekuan izandako begiralearen izen-abizenak• Praktiken hasiera eta bukaerako data• Fakultateko tutorearen izen-abizenak• Ikaslearen izen-abizenak, NANA, maila, sinadura• Memoriaren data <p><i>Enpresa edo erakundeko begiraleak memoria irakurri eta ontzat jo badu, haren sinadura ere azalduko da azalean.</i></p>
AURKIBIDEA	<p>Orri zenbakiak agertu beharko dira.</p>
SARRERA	<p>Praktikak non eta noiz egin diren jakiteko gutxieneko informazioa (tokia, hilabeteak, ordu kopurua) emango du, eta edukiaren azalpen labur bat egingo du. (gehienez orri bat)</p>
PRAKTIKEN LEKUAREN DESKRIBAPENA	<ul style="list-style-type: none">• Oinarrizko datuak: izena, helbide osoa, jabetza eta abar.• Praktiken lekua erakunde handiago baten zati bada, eman erakundearen helburuen eta antolaketaren berri.• Praktiken lekuaren organigrama.• Ezaugarri nagusiak: helburuak, balizko bezeroak, bertara heltzeko bideak, eskainitako programa edo zerbitzuak, esku hartzen duten lan talde eta profesionalak eta abar.• Beste zerbitzu eta gune batzuekiko harremana eta koordinazioa. Bestelako informazio jakingarria. (gehienez 4 orri)

<p>EGINDAKO JARDUERAK (gehienez 10 orri)</p>	<p>Praktiketan egindako jardueren laburpena (EZ da deskribapen xehe-xehea egin behar, egindako lanaren ikuspegi orokorra eman baino): lekua, ikasleari jarduera bakoitzerako zehaztutako helburuen deskribapena eta denboraren banaketa. Ikasteko eta bibliografian sakontzeko jarduerak ere aipatu behar dira.</p> <p>Praktikan zehar tratua izandako edo lan egindako zerbitzu edo profesionalak (bertako begiralea barne).</p>
<p>BALORAZIO PERTSONALA (gehienez 10 orri)</p>	<p>Praktikei esker ikasitakoak: Adibidez, 23mail23 daitezke erabiltzaileekiko eta beste profesional batzuekiko harremanetan eskuratutako trebetasun teknikoak; erakundeaz eta lan egin duen programez ikasitakoa, edo harremanen bat eduki duen beste erakunde, administrazio eta abarrez ikasitakoa; prozedurez eta baliabideen koordinazioaz ikasitakoa; edo erabiltzaileen benetako ezaugarriez ikasitakoa, espezializatorako aukera posible gisa. Ikasteko eta bibliografian sakontzeko jarduerak ere aipatu behar dira.</p> <p>Praktikan aurkitutako arazoen zerrenda eta horiek konpontzeko erabilitako prozedura.</p> <p>Autoebaluazioa: Honako hauek azter daitezke autoebaluazioan: praktiketan zehar egindako ibilbidea (adibidez: usteak, jarrera); lan arlo horretan 23mail23n egiteko trebetasun eta gaitasun profesionalak; edo, norberaren prestakuntzan bete beharko liratekeen hutsuneak, arlo horretan lan egin nahi izanez gero.</p> <p>Esperientziaren baliagarritasuna ikaslearen etorkizun profesionalerako.</p> <p>Hobetzeko iradokizunak</p> <p>Bestelako oharrak eta iradokizunak</p> <p>Praktiken balorazio orokorra</p>
<p>ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK</p>	<p>(APA estilo araei jarraiki)</p>
<p>ERANSKINAK</p>	<ul style="list-style-type: none"> • “Praktiketako asistentzia erregistroa”, behar bezala beteta (ikus eredu). • Gehitu daitezke egunerokoak (autoerregistroak), historia klinikoaren ereduak, memoria ereduak, argazkiak eta praktika guneko bestelako dokumentazioa, baldin eta begiraleak baimena sinatu badu.

BEGIRALEAK IKASLEAREN AZKEN MEMORIA GAINBEGIRATZEA

Erakunde edo enpresako begiraleak eskubidea dauka, nahi badu, memoria gainbegiratu eta egoki deritzen zuzenketak proposatzeko, ikasleak aurkeztu baino lehen. Hori dela eta, komeni da begiraleari galdetzea behar besteko aurrerapenaz. Edonola ere, komeni da ikasleak begiraleari eskatzea memoria gainbegira dezan.

Ikasleak eranskin gisa egunerokoak (autoerregistroak) gehitu baditu, historia klinikoaren ereduak, memoria ereduak, argazkiak edo enpresa edo erakundeko bestelako dokumentazioa, begiralearen baimen sinatua ere gehitu beharko du eranskin horietako bakoitzerako.

DATU PERTSONALEN BABESA

Memorian ezin da sartu enpresa edo erakundeko paziente/bezero/erabiltzaileen datu pertsonalik, edo haiek identifikatzeko balio dezakeen bestelako datu edo informaziorik.

KONFIDENTZIALTASUNA (eranskina)

KANPO BEGIRALEAREN TXOSTENA (eranskina)

KANPOKO PRATIKEN EBALUAZIOA (eranskina)

PRAKTIKETAKO ASISTENTZIA ERREGISTROA (eranskina)

7. MASTER-AMAIERAKO LANA

EDUKIAREN DESKRIBAPEN LABURRA

Masterraren helburua da ikasleak Osasuneko Psikologo Orokorraren jardueraren alorrean beharrezko kalitate tekniko eta giza kalitatearekin lan profesionala gauzatu ahal izateko gaitasunak edukitzea, eta baita jarduera horrekin lotutako ikerketari begira prestakuntza egokia edukitzea ere. Master-amaierako Lana (MAL) egitean eta defendatzean argi geratu behar du Osasuneko Psikologo Orokorraren arlo aplikatuan, edo hala badagokio, ikerketarenean, ikasleek onura atera dutela eta lanean jardun dutela. Lan honek ikasleek lortutako trebetasun eta gaitasun guztiak irudikatzen ditu; esan nahi baita, prestakuntza-prozesu osoan lortutako heldutasuna eta maila zientifiko-teknikoa.

MALn, ikasleak erakutsi beharko du baduela gaitasun profesionala edo ikerketagaitasuna, osasun integrala hobetzeko prebentzio edo esku-hartze psikologiko eta psikosozialeko jarduerarekin lotuta.

Lan zientifiko baten egitura izango du eta masterreko zeinahi irakasgairi buruzkoa izango da. Proiektu edo lan zientifiko bat egin, aurkeztu eta defendatzea du helburu, eta bertan ikasleak masterrean eskuratutako ezagutzak eta gaitasunak adierazi behar ditu.

MALaren gai espezifikoa ikasleak berak aukeratzen du, masterreko irakasleek eman edo proposatutakoen artean. Ikasleak lan mota hauen artean aukera dezake:

- Kasu praktikoak aztertu eta ebaluazio psikologikoko txostenak prestatzea.***
- Esku-hartze indibidual edo kolektibo bat diseinatzea, eta hori ebaluatzeko metodologia.
- Ikerketa aplikatu bat egitea (edo ikerketa proiektu bat) datu enpirikoekin, masterreko moduluetako gai baten gainean, Osasun Psikologiaren eremuan.***
- Gai garrantzitsu baten errebisio teoriko bat egin osasunaren psikologiaren eremuan

Master Amaierako Lana Osasun Psikologia Orokorraren alorrean espezializatzeko prestakuntzaren azken urratsa da. Ikasleak ahoz azaldu behar du epaimahai baten aurrean, hark ebalua dezan. Defentsa publikoa da, eta epaimahaia masterreko hiru irakasleek osatzen dute.

***Gizakiekin, haien lagin biologikoekin edo datu pertsonalekin egiten diren lan guztiak **Gizakiekin lotutako ikerketarao etika batzordeak (GIEB)** ebaluatu behar ditu. Batzordeak aldeko txostena eman beharko du proiektua hasi baino lehen, planteamenduak baldintza metodologiko, etiko eta legalak betetzen dituela ziurtatzeko. Zuzendari/tutorearentzat eta ikasleentzat, batzordeak egin beharreko ebaluazioak atzerapen ekar dezaka MALa hasteko orduan. Ikusi:

<https://www.ehu.eus/documents/2458096/2528821/TFGinforme CEISH Cast.pdf>

IRAKASGAIAREN GAITASUNAK

- Osasun integralaren kontzeptua barneratu, garatu eta praktikan jarri, osasunaren osagai biopsikosozialei leku eginda, OMEk finkatutako jarraibideekin bat etorrira.
- Jarduera profesionalean bioetikaren oinarriak eta gogoeta egiteko metodoa aplikatu, eta osasun-arloko profesional gisa jardun, osasun-arloko lanbideak arautzeko azaroaren 21eko 44/2003 Legean xedatutakoari jarraiki.
- Pertsonen artean komunikatzeko eta emozioak egokiro gobernatzeko trebetasuna izan arazoa identifikatzeko, ebaluatzeko, diagnostikoaren eta esku-hartzearen berri emateko eta jarraipen psikologikoak egiteko prozesuetan zehar eragin-truke eraginkorra gerta dadin gaixoekin, familiekin eta erizainekin.
- Kritikoki aztertu eta informazio klinikoaren iturriak erabili.
- Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabili laneko egitekoetan.
- Txosten psikologikoak egin hartzaileentzat, modu egokian.
- Ikerketaren esparruko lan-hipotesiak egin, eta informazioa kritikoki jaso eta baloratu, arazoak konpontzeko, metodo zientifikoa aplikaturik.
- Osasun-arloko psikologo nagusiaren jardun-esparrua ezagutu eta dagokion profesional espezialistarengana bidaltzen jakin.
- Lana kalitatearen eta etengabeko hobekuntzaren ikuspuntutik garatu, lan profesional arduratsua izateko behar-beharrezkoa den autokritika egiteko gaitasunarekin.
- Komunikatzen jakin, baita beste profesionalekin ere, eta lana taldean eta jakintza-alar anitzeko taldeetan egiteko beharrezkoak diren trebetasunak menderatu.
- Osasun-arloko langileen betebeharrak eta erantzukizunak ezagutu, gaixoen datu pertsonalen babesari eta informazioaren isilpekotasunari dagokienez.
- Giza portaeraren izaera psikologikoa eta hartan eragina izan dezaketen gizarte- eta biologia-faktoreak ongi ezagutu.
- Giza portaeraren nahasmenduen izaera psikologikoa ongi ezagutu.
- Osasun- eta gaixotasun-arazoei lotutako faktore psikosozialak ongi ezagutu.
- Osasun- eta gaixotasun-arazoei lotutako faktore psikosozialak eta biologikoak ongi ezagutu, bereziki buru-osasunarekin zerikusia dutenak.
- Osasun Psikologia Orokorren esparruan eta osasun-arazoei lotutako faktore psikologikoetan ebaluazio eta esku-hartze ereduak ongi ezagutu, baita haietatik eratortzen diren teknikak eta prozedurak ere, portaeraren nahasmenduei aurre egiteko.
- Giza portaeraren eta osasun-arazoei lotutako faktore psikologikoen ebaluazio psikologikoaren prozesua planifikatu, gauzatu eta, hala behar duenean, ikuskatu, haien ebaluazioa zehaztu ahal izateko.

- Ebaluazio psikologikoan eta kasu bakoitzean gertatzen diren aldagai indibidual eta sozialetan oinarriturik, esku-hartze psikologikoko planak eta programak diseinatu, garatu eta, hala behar badu, ikuskatu eta ebaluatu.
- Enpresa bat osatzeko, abiarazteko eta kudeatzeko ezinbestekoak diren jarduerak ezagutu, baita forma juridikoak eta haiei atxikiriko lege-, kontabilitate- eta zerga-betebeharrak ere.
- Espainiako osasun-esparruan indarrean dagoen arautegia ezagutu.
- Norberaren eta komunitatearen osasun psikologikoa zaintzeko sustapen- eta heziketa-jarduerak egin.

MASTER AMAIERAKO LANERAKO IZENA EMATEA ETA LANAREN DEFENTSA

Lanaren luzera eta ezaugarri formalak: Lanak 30 eta 50 orri bitartean izango ditu. Gehienez ere 50 orri izango ditu (erreferentzia bibliografikoak eta eranskinak kontuan hartu barik). Gomendatzen dugu honako ezaugarriok erabiltzea: lerroartea: 1,5; letra tipoa: Times New Roman; tamaina: 12 puntu.

Zuzendaria: Masterreko Batzorde akademikoak tutore bat emango dio ikasle bakoitzari Master Amaierako lana egiteko. Tutorea nahitaez izango da Masterreko partaidea eta irakasle doktorea, baina EHU-ko lan kontratuduna edo bertako funtzionarioa ere. MAL-ak zuzendarikide bat izan dezake, masterreko beste irakasle bat edo bertako irakasle izan gabe, izateko barne irizpideak betetzen dituen irakasle bat hain zuzen.

Matrikula egiteko baldintzak: MAL-eko matrikula 2.ikasturtetik aurrera egin daiteke, masterra amaitzeko behar diren kreditu guztiak matrikulatu behar direlarik horretarako. Bigarren ikasturtearen hasieran (urria inguruan), ikasleek idazkaritzan jakinarazi beharko dute MAL-aren izenburua eta zuzendariaren izena.

Defentsarako baldintzak: Oro har, MALa defendatu eta ebaluatu ahal izateko, egiaztatu egin beharko da ikasleak ikasketa planeko gainerako gai guztiak gaindituta dituela da eta, hortaz, MALari dagozkion kredituak izan ezik, masterreko titulua lortzeko beharrezkoak diren gainerako kreditu guztiak dituela.

Hala ere, Masterraren Batzorde Akademikoak erabaki dezake, egoki joz gero, MALa defendatzea eta ebaluatzea masterreko titulua lortzeko beharrezkoak diren gainerako kredituak gainditu baino lehenago, betiere ikasleak eskatzen badu eta ikasketa planeko gainerako irakasgai guztietarako matrikula egina badauka.

Defentsarako deialdiak (epaimahaiak): 1. Deialdia ohikoa maiatzaren azkeneko astean izango da (maiatzak 26-30), eta 2. Deialdia ez ohikoa uztailaren lehenengo astean (uztailak 1-4). Bien artean gutxienez 30 eguneko tartea egongo da.

Lana entregatzeko data: Master amaierako lanaren defentsa baino hiru aste lehenago, ikasleak psikologia.fak.masterrak@ehu.eus bidaliko du bere lana.

Defentsa: ekitaldi publikoa denez, ikaskideak joan daitezke defentsara. Ikasle bakoitzak 10-15 minutu izango ditu aurkezpen bat egiteko PowerPoint erabiliz, eta minutu batzuk epaimahaikideekin eztabaidatzeko.

Ikasleak tutorearekin batera adostu beharko ditu gutxienez bi zirriborro emateko egutegia eta zein deialdira aurkezten nahi duen (GAUREn eskatuko du).

MASTER AMAIERAKO LANAK ANTOLATZEKO GIDA

AZALA: Lanaren izenburua eta ikaslearen eta zuzendariaren izenak (dokumentu idatzian zuzendariak bere izena ez jartzeko eska dezake).

